



MONUMENTUAK ETA ESKULTURAK

Agian orain arte ez zenion erreparatuko, baina gure hiriak aire zabaleko museo bat dirudi; izan ere, mota, tamaina eta material guztietako ehun eskultura baino gehiago ditugu Donostiako kaleetan banaturik.

Haietako asko hiriak donostiar batzuei esker ona adierazteko dira; beste batzuk unean uneko eskultoreei eskatzen zaizkie, beste batzuek hiriaren une bat islatzen dute... Baina guztiek dute istorio bikain bat kontatzeko.

Ea zenbat aurkitzen dituzun hurrengo paseoan!



E1

HAIZEAREN ORRAZIA

Eduardo Chillidaren eskultura hori Ondarretako hondartzaren amaieran dago, Igeldo mendiaren magalean, eta lurraren eta itsasoaren artean dagoen eskultura bakarra da.

Hiru orraziak

Haizearen Orrazia corten altzairuzko hiru eskulturaz osatutako multzo bat da, eta haietako bakoitzak 9 tona baino gehiago pisatzen du.

Eskulturak jarrita dauden modua dela eta, badirudi harkaitzetik bertatik irteten direla, haren parte balira bezala eta beti hor egon izan balira bezala.





Haizearen Orrazia oso leku berezia da eta eguraldi onarekin argazki harrigarriak atera ditzakezu. Eguraldi txarra den egunetan, gainera, elementu berri bat sortzen da: plazako zoruko zuloetatik indarrez ateratzen den haizearen txistu-soinua.



Ibili zara inoiz lurreko zuloetatik irteten den aireari ihes egin nahian?



Chillidak ahalegin handiak egin zituen Haizearen Orraziak kokalekuarekin bat egin zezan; obrak beti han egon zela ematea nahi zuen artistak. Erreparatzen badiozu, eskultura bakoitza bakarra dela ikusiko duzu, eta horrek lan handia eskatzen du. Pieza bakoitza, serie beraren parte izan arren, erronka bakarra eta ezberdina da.

Izan ere, Eduardo Chillidak 23 orraziz osaturiko saila egin zuen Haizearen Orrazia sortzeko. Hain justu, jatorrizko izena Haizearen Orrazia XV da; hau da, gaur egun ezagutzen ditugun piezak hark diseinaturiko 23 eskulturen sail horretako hamabosgarren postuan daude. Hasieran pieza bakarra jartzea pentsatu zuen, baina berehala ikusi zuen eskultura hiru elementuz osatu behar zela.



HISTORIA: Herritarren ekimen batetik sortu zen

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Eduardo Chillida artista ezagun ari zen bihurtzen, eta zenbait donostiar elkartu egin ziren, aldi baterako erakusketa batekin omenaldi bat egiteko. Artistak berak nahi izan zuen obra hura betiko Donostian geratzea, eta ez izatea koiunturazko zerbañt.

Kokalekua artistak berak aukeratu zuen, nahiko erraz: txikia zenean, leku horretara ihes egiten zuen, olatuen eta itsasoaren erasoaz gozatzera. Artista 1952an hasi zen Haizearen Orrazia izeneko eskultura sortarekin, baina 25 urte geroago sortu zuen behin betiko obra, 1977an, eta orduan oparitu zion hiriri.



Eskulturak instalatzeko erronka

Zalantzarik gabe, 9 tona pasealekuaren amaierara arte garraiatzea eta han jartzea izan zen erronkarik handiena. Helikopteroak erabiltzeko aukera aztertu zuten, baina arriskutsua zen. Lanak gabarretan eramateko aukera ere planteatu zuten, baina hori ere ez zen bideragarria. Hori horrela, trenbideak gaitu zituzten pasealekutik harkaitzetaraino, eta Renfek utzitako orga batek eraman zituen hiru orraziak beren kokalekuraino.

Chillidaren beste eskultura batzuk Donostian

Haizearen Orrazia ez da gure hirian ikus daitekeen Eduardo Chillidaren lan bakarra. Ugari dira Chillidak miresten zuen jendeari egindako omenaldiak: Omenaldia Flemingi, Kontxako pasealekuko Bigarren Mendeurreneko Begiratokian; Omenaldia Pedro Aranari Urgullen; Besarkada, Miramar Jauregiko lorategian, Loretope gainean; eta Bakearen Gurutzea Ruiz Balerdi margolariaren omenez, Artzain Onaren katedralaren sarreran... Horra hor artista honen beste lan batzuk.



Omenaldia Flemingi.



Omenaldia Pedro Aranari.



Besarkada.



Bakearen Gurutzea.



E2 JESUSEN BIHOTZA

Jesusen Bihotzak 12 metro baino gehiagoko garaiera du, eta, 1950etik, hiria bedeinkatzen du Urgull mendiaren tontorretik.

Estatuak Motako Gazteluko kaperetako bat du oinarri gisa, eta 24 metro baino garaiago da guztira. Hareharriz eta hormigoiz egina da. Eskuineko besoak Donostia bedeinkatzen du, eta ezkerrekoa, berriz, gorputzari itsatsita dago, bihotza seinalatuz.

1950eko azaroaren 19ko eguerdiko ordu batean inauguratu zuen Pio XII.a aita santuak estatua, eta Gipuzkoako herria bedeinkatu zuen, hirian jarritako bozgorailuetatik eta Radio Vaticano irrati-katearen bidez emantiko meza batekin.





Beste badia handi bat.

Mendiz eta muinoz inguratutako lur lau baten gainean dagoen hiri eder bati buruz hitz egiten badizugu, asko etorriko zaizkizu burura... Baina badia ikusgarri bat aipatuz gero, hondartzak oso ospetsuak dituena eta tontorrean Kristoren estatua bat daukana goitik begira... Jakingo zenuke zer hiriri buruz ari garen? Pista bat emango dizugu, ez gara ari Donostiaz, nahiz eta San Sebastian duen izenean hark ere. Oso hiri ospetsua da Amerika aldean. Badakizu zein den?



E3 INGELESEN HILERRIA

Urgull mendiaren iparraldeko hegalean, gazteluaren azpian, hilerri militar bat dago, hilobiekin eta oroimenezko eskultura multzo batekin: Ingelesen Hilerria.

Lehen Karlistaldian, 1833 eta 1840 artean, Britainiar Legioko soldadu asko hil ziren Espainiako Isabel II.a erreginarene eskubideen alde borrokan. Beren herriarena ez zen gudu batean erakutsitako ausardia eskertzeko, hilerri hori eraiki zuten.



Victoria Eugenia erregina eta Torrecillako markesa ikus daitezke, Sara eta Maria Matilde Callenderren hilobiaren aurrean.



Orduan, zergatik nahasten da jendea?

Oso erraza da: Sir Richard Fletcherren eta 1813ko Donostiako erasoetan hildako beste hiru "errege-ingeniariren" hilarriak eta monumentuak daudelako.

Baina hor lurperatu zituzten hilerri bat egon aurretik?

Ez. Baina, bi hamarkada geroago, britainiar kideak gure harresiak defendatzera etorri zirenean, hilarriak jarri zituzten errespetuaren eta oroitzapenaren erakusgarri.

Zergatik hilerri bat Urgullen?

Frantziako tropek gaztelua okupatu zuten bost urteetan, haien sinesmen erlijiosoek galarazi egin bide zien hilerri katolikoetan lurperatuak izatea, eta, beraz, litekeena da Urgull mendian bilatzea tokiren bat haien hildakoentzat.

Gobernu britainiarrak Independentzia Gerrako kanoi bat bidali zuen, monumentu horretan jartzeko. Artilleria Museoak utzitako garai bereko beste kanoi baten ondoan dago.





1913ko Mendeurrenako Monumentuan dagoen talde eskulturikoaren xehetasuna. 1924an Ingelesen Hilerrira eraman zuten.



Eskuinean, Tupper koronelaren mausoleoa, eta ezkerrean, bertiz, Oliver de Lancy koronelarena, biak 1836koak.




Soldadu talde hori, jatorrian, Donostiako sutearen eta berreraikuntzaren mendeurrena ospatzeko monumentuan zegoen, Alderdi Ederreko lorategietan. 1924an kokatu zen toki horretan, eta erromantizismoz eta misterioz betetako paisaia osatu zuen.



E4 AITA MARI

Eskultura hori gure hiriko kaian dago, eta begiak zabalik ez bazoaz, baliteke oharkabean pasatzea.

Mari ez dago eskolan irakasten dizkiguten historia-liburuetan, baina bertako heroi peto-petoa izan zen.



Itsasontzi bat Donostiako portuan hondoratzen. 1923ko urria.



BAINA NOR IZAN ZEN AITA MARI?

Jose Maria Zubia Zigarán, Mari, Zumaián jaio zen 1809an, arrantzale-familia batean. Txikitatik aritu zen itsasoan, eta gaztetan Amerikarekin merkataritzan jarduten zuen ontzi batean hasi zen, diru pixka bat irabazteko. 1850 inguruan, aurreztu zuen guztia gastatu zuen txalupa beladun bat erosteko, eta Donostiako portuan ezarri zen, arrantzako patroí gisa.

Aita Mari oso ezaguna zen, beti baitzen lehena arrantzaleei laguntza eskuzabala eskaintzen, itsasoan arriskuren bat agertzen zenean. Hamaikatxo erreskate egin zituen, eta, horren ondorioz, oso pertsona maitatua bihurtu zuen.



BA AL ZENEKIEN?

***Aita Mari izenez ezagutzen zuten,
itsasontzietako patroiei aita deitzen baitzieten.***

Nahi duzu haren balentrietako bat kontatzea?

1861eko uztailaren 22an, sekulako enbata sartu zuen Gipuzkoako kostaldean. Hiritik ikusi zuten San Jose txalupa hondoratzen ari zela, eta lau tripulatazailer borrokan ari ziren, bizitzaren eta heriotzaren artean. Nahiz eta guztiek eskaini nahi zieten laguntza, olatu izugarriak zebiltzan, eta inor ez zen ausartzen haien bila joaten. Orduan, Aita Mari txalupa bat osatu zuen bederlatzi boluntarioekin, eta hiru marinel erreskatatzea lortu zuen. Heroitasun horrengatik, Aita Mari eta haren kideek Itsas Armadaren Ongintzaren Gurutze Handia lortu zuten —marinel gutxiak lorzen duten aitortza—.

Azken erreskatea 1866ko urtarrilaren 9an izan zen, beste ekaitz izugarri batean: Aita Mari Getariako arrantzale batzuk erreskatatzera abiatu zen, zeinak Kontxako badian sartu nahian baitzebiltzan, denboraletik babesteko. Urgull aldetik, Aita Mariren ontzia olatu artean nola agertzen eta desagertzen zen ikusten zuten, harik eta, itsas kolpe batean, Mari irauli egin zen arte. Beste arrantzale batzuk irten zitzaizkion laguntzera, baina Aita Mariren gorpua ez zen inoiz agertu. Aita Mari berak erreskate hartan bizia galdu zuen arren, beste guztiak salbatzea lortu zuen.



BA AL ZENEKIEN?

Donostiarrek berek jarri zuten lehen bustoa portuan. 1901ean, Udalak bustoa aldatu zuen, eta gaur egun ikusten duguna jarri zuen.

Garai batekoa Aita Mariren iloba bati eman zioten, eta hark Zumaiako herriari eman zion: hantxe ikus dezakegu oraindik. Hain justu, handik paseatzen bazarete, askotan entzungo duzue Aita Mariren ibilbidea, kale bat, auzo bat, arraun taldea eta are futbol zelai bat baititu!



E5 ERAIKUNTZA HUTSA

Lurra eta itsasoa lotzen dituen hirugarren obra handia Jorge Oteizarena da, eta 2009an jarri zen Pasealeku Berrian (eskultura sei metro garai da, eta corten altzairuz egina dago, Haizearen Orrazia bezala).

Pieza horrek itsasorako leihoa dirudi, eta oso leku politean dago, olatuek nola jauzi egiten duten ikusteko, batez ere irailean.

Oteiza eta halako artisten lanak ulertzeko, inspiratzen zituzten kontzeptuak ezagutu behar dira, eta hori ez da beti erraz ikusten. Hain justu ere, Jorge Oteiza bere garaiko sortzailerik iraultzaileenetako bat izan zen: formatik piezak egiteari utzi, eta ideia abstraktuetatik abiatuta diseinatzen hasi zen.


Oteizaren beste bi lan daude hirian: Errukia; hau da, Andre Maria Jesusen heriotzagatik negarrez.



Oteizaren beste bi obra daude hirian, "Pietatea" irudikatuta, hau da, Ama Birjina negarrez Jesusen heriotzogatik.



Pietà (1998), San Bizente elizako fatxadan.



"Piedad" (1969), Donostia ospitaleko sarreran dago.

Antzekoak diren arren, ikusten dugu badutela alde nabarmenik, 29 urteko aldearekin egin baitziren.



E6 ANTONIO OKENDO

Antonio Okendok piratei aurre egin zien, duelu garrantzitsuak bizi izan zituen, Indietako urrea babestu zuen, gudu epikoak irabazi zituen... Agian ez duzu jakingo, baina Antonio Okendo almirante donostiarra heroi handia da, historia-liburuetan agertzen diren horietakoa.

Antonio Okendo Zandategi, Migel Okendo jeneral eta itsasgizon ospetsuaren semea da —aita zena ere itsasgizona, almirantea, gerrako aholkularia... izan zen, bera bezalaxe—.

Napoliko galeretan hasi zuen marinel-karrera, 16 urte zituenean, eta berehala nabarmendu zen. Hala, 18 urterekin itsasontzi arinak zituen bere agindupean.

Handik urte batzuk geroago, bidaiari transozeanikoak hasi zituen Nueva España Flotako jeneral gisa, eta Ameriketatik iristen ziren harrapakinak eta metal preziatuak zaintzeko, ezagutzeko eta babesteko lanak egiten zituen.

Itsas Armadako almirante jeneral eta Gerra Kontseiluko kide izendatu zuten. Horixe zen espainiar marinel batek izan zezakeen titulu gorena.

Hain zen ona bere postuan, ezen etsaiak beldur baitziren hari aurre egiteko.



The Downseko gudua

Okendoko azken gudu handia holandarrek irabazi zuten, baina marinelaren loria areagotu besterik ez zuten egin, inork ez baitzuen lortu almirantearen ontzia errenditzea.

Mendebaldeko Europa Hogeita Hamar Urteko Gerraren azken txanpan zegoen. Richelieuri jakinarazi zioten berrogeita hamar ontziko armada espainiar bat zetorrela, eta Espainiako itsasgizonik trebeena zutela buru, Okendo.

Horregatik, Tromp almirante nederlandarraren armada Mantxako kanalera irten zen, haien zain. Holandarrek mendekua nahi zuten, urte batzuk lehenago Abrolhoseko gudua galdu izanagatik Okendoren aurka.


Okendo etsaiaren ontzi kapitainaren aurka zuzenean borrokatzen saiatu zen, borroka bien artekoa izan zedin, baina Trompek saihestu egin zuten: Okendo onegia zen borroka horietan, baina, holandarren flota handiagoa zenez kopuruari dagokionez, abantaila zuten.



Reinier Nooms artistaren The Downseko guduaren aurretik (1639 ingurua), Ingalaterrako kostaldearen blokeo holandarra irudikatuz. Aemilia da ageri den ontzia, Trompen bandera-ontzia

Ontzi guztien arteko gudua gertatu zen, eta Trompek halako kaltea eragin zion Espainiako Armadari, ezen The Downseko badiara bultzatu baitzuen ontziak konpontzeko. Espainiarrak portuan zeuden bitartean, Trompek errefortzuak jaso zituen. Beraz, itsasora itzuli zirenean, borroka guztiz neurrigabea izan zen, eta laster amaitu zen.

Alabaina, Herbehereetako lau ontzik Okendoren ontziari eraso egin zioten arren, ez zuten lortu hura hartzea, bederatzi orduko borrokaren ondoren. Okendoren itsasontzia hain zen ona borrokan, ezen Holandako zenbait ontzi hondoratu baitzituen. Portura itzuli zenean, 1.700 kanoi-bala zenbatu ziren



Kanoi urtuekin egindako estatua bat

XIX. mendean, oso ohikoa zen tokiko pertsonaia historikoen eskulturak egitea, eta Okendok argi eta garbi merezi zuen halako bat. Hala, estatua hori diseinatzen hasi ziren: banderaren puntaraino 4,80 metro neurtzen du, eta 2.700 kilo pisatzen ditu.

Monumentu hori egiteko, Itsas Arazoetako Ministerioak jada balio ez zuten kanoi batzuk eman zituen. Galdatzean, bost tona brontze atera ziren, eta horiekin eraiki zen eskulturaren zati handi bat.

Eskulturaren azpiko apaingarriek esanahi handia dute. Neptunoren bustoa ikus dezakegu —itsasoaren jainkoa—, Okendo itsasoaren jabetzat hartu ohi baitzuten, itsasoan izaniko borroka ugariengatik. Neptunorekin batera, bi emakume ikus ditzakegu, Okendoren bizitzako lagunak: Itsas Armada eta Gerra. Brontzezko erliebeetan, bere balentrietako batzuk eta Okendo nor izan zen kontatzen digun testu bat daude irudikatuta.





Erreplika batekin inauguratu zen

Lehenengo harria 1887an jarri zen eta, zortzi urte geroago inauguratu zen eskultura, 1894ko irailaren 12an, hain zuzen ere. Egun hori aukeratu zuten, Okendok gidatu zuten gudu handietako baten urteurrena baitzen.

Dena prest zegoenean, inaugurazioa baino lehen, estatua zatitu egin zen, eta berriro urtu behar izan zuten. Ekitaldia ez atzeratzeko, brontze kolorez margotutako igeltsuzko erreplika bat egin zuten, behin-behinean iragazgaiztua. Behin betiko eskultura diskretuki jarri zuten hiru hilabete geroago.

Uste duzu norbait konturatu zela aldaketaz?





E7 WALLACE ITURRIAK

*Wallace iturria
Parisen.*

*Wallace iturria
Frantzia pasealekuan.*



Prusiako gerraren ondoren, Parisen iturri asko eraiki behar zituzten. Hori horrela, Richard Wallacek zenbait iturri diseinatu zituen: ekonomikoak izateaz gainera, hain ziren politak, ezen hiri askok nahi baitzuten berdinak.

Donostian horietako batzuk erosi genituen, Kontxako pasealekua eta Boulevardeko zumardia politago egiteko, eta, bide batez, herritarrei edateko ura eskura ipintzeko. Gaur egun, Frantzia pasealekuan daude, eta, iturri lana betetzen ez badute ere, itxura paregabea izaten jarraitzen dute.



E8 BAKEAREN USOA

Itsasoaren aurrean dagoen bigarren eskultura handia Saguesen dago, skateparketik oso gertu. Nestor Basterretxeak gure hirian duen obretako bat da.

1980ko hamarkadaren amaieran, Donostiako Udalak obra bat enkargatu zion Basterretxeari, Donostiak bakearekin, askatasunarekin eta bizikidetzarekin zuen konpromisoa irudikatzeko.

Hori horrela, eskultore bizkaitarrak bakearen ikur unibertsaleko bat aukeratu zuen: usoa. Hala, zazpi metroko garaiera, bederatzi metroko zabalera eta metro beteko hondoa zituen profil sendo batekin sortu zuen.

Haizeari eta neguko ekaitzei aurre egiteko altzairuzko xaflaz osatuta dago egitura, eta poliester zuriz estali zuen, kolore horrek mundu osoko askatasunaren purutasuna sinbolizatzen baitu.



Badakizu zenbat pisatzen duen uso erraldoi horrek? 4 tona! Usoa bakearen aldeko festa handi batekin inauguratu zen.



Donostian badira Nestor Basterretxearen beste lan batzuk ere. Hauek dira:



Monumentua Pío Barojari.



Gernikako Arbola.



Omenaldia Iztueta koreografoari.



Memoria bizia.




E9 HONDALEA

«Hondalea» hitzak itsas amildegia esan nahi du, eta izen horixe ipini zion Cristina Iglesias donostiarrak obra horri.

XXI. mendeko eskultura hori brontzekoa da, eta Santa Klara uharteko itsasargiaren etxe osoa hartzen du. Pieza horrek Donostiako badiaren eta inguruko kostaldeen hondoko irudiak birsortzen ditu, urak mareen erritmoa simulatzen duela.

Sekulakoa!



Ondoren, hirian sartu den azken eskulturaren bitxikeria batzuk kontatuko dizkizuegu:

5 metroko sakonera du barneko zuloak, eta eraikinaren azalera, berriz, 7,51*9,76 metroko da.

15 tona pisatzen du brontzezko piezak gehi metalezko egitura eta ontzi.

20 metroko kubiko ur da eskulturaren edukiera, 60ko depositu batekin.

300 metro kubiko da pieza sartuta dagoen hormigoizko ontziaren.

54 brontzezko piezak osatzen dute obra hori.

35 helikoptero bidaia behar izan ziren, obra eta egitura metalikoa garraiatzeko.